



Sopelako Udala

Ayuntamiento
de Sopela

ALKATETZA DEKRETUA

Maiatzaren 23ko SND/440/2020 Aginduaren 46.5 artikulua (COVID-19k eragindako osasun-krisia hobeto kudeatzeko hainbat agindu aldatzen dituena, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Plana aplikatuz) ahalmena ematen die udalei hondartzetarako sarbideak, horien edukiera edo horietan egoteko denbora mugatzeko, bai eta aparkalekuetarako sarbidea mugatzeko ere, haien edukieraren kontrola bermatze aldera.

Kontuan hartu dira SARS-Cov-2-k pandemia egoeran dauden EAEko hondartzak eta bainatzeko guneak irekitzeko eta erabiltzeko Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako osasun-irizpideak.

Eta, oro har, herritarren osasuna babesteko ,

ERABAKITZEN DUT:

LEHENENGOA.- Barinatxe eta Arriatera hondartzetara sartzeko aparkalekuaren zati bat ixtea, eta Atxabiribil hondartzara sartzeko aparkalekua erabat ixtea, eta, ondorioz, debekatu egiten da gune horietan aparkatzea edo zirkulatzea. Edozelan ere, apurka-apurka irekitzeko aukera ezarri ahal izango da, bai partzialki, bai osorik, asteko ordu edo egun jakin batzuetan, betiere osasun-alertaren bilakaerak eta hareatzetako edukierak horretarako aukera ematen badute.

BIGARRENA.- Barinatxe, Arriatera eta Atxabiribil hondartzak jendez hustu ahal izango dira edo horietara sartzeko mugak jarri ahal izango dira. Horretarako, aintzat hartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Salbamendu eta Sorospen Zerbitzuko langileen jarraibideak edo beste bitarteko batzuen bidez lor daitezkeen datuak, hondartzaren okupazio-mailak

DECRETO DE ALCALDIA

El artículo 46.5 de la Orden SND/440/2020, de 23 de mayo, por la que se modifican diversas órdenes para una mejor gestión de la crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 en aplicación del Plan para la transición hacia una nueva normalidad, faculta a los ayuntamientos a establecer limitaciones de acceso, aforo o de tiempo de permanencia en las playas, así como de acceso a los aparcamientos en aras a garantizar el control de aforo de las mismas

Atendidos los criterios sanitarios del Departamento de Salud del Gobierno Vasco para la apertura y uso de las playas y zonas de baño de la CAV en situación de pandemia por SARS-Cov-2.

Y con el fin último de salvaguardar la salud de la ciudadanía en general

DISPONGO:

PRIMERO.- El cierre parcial del parking de acceso a las playas de Barinatxe y Arriatera así como el cierre total del parking de acceso a la playa de Atxabiribil y, en consecuencia, la prohibición de estacionar o circular en dichas zonas. Podrá establecerse una mayor apertura a bien de forma parcial o total en determinadas horas o días de la semana siempre y cuando la evolución de la alerta sanitaria y el aforo de los arenales lo permita.

SEGUNDO.- El desalojo o la limitación de acceso a las playas de Barinatxe, Arriatera y Atxabiribil, en función de las indicaciones del personal de la Diputación Foral de Bizkaia, del Servicio de Salvamento y Socorrismo o de los datos que se puedan obtener por otros medios por los que se pueda advertir que el nivel de ocupación de la playa pueda





Sopelako Udala
Ayuntamiento
de Sopela

erabiltzaileen osasuna arriskuan jar dezakeela ikusten bada.

HIRUGARRENA.- Debekatu egiten da hareatzetan banakako eta taldeko kirola egitea 11: 00etatik 20: 00etara.

LAUGARRENA.- Erabiltzaileei gomendatzen zaie hondartzetan gehienez hiru orduz egotea.

BOSGARRENA.- Erabiltzaileei gomendatzen zaie eguzkitakoak, aulkiak, hamakak, koltxonetak eta abar ez eramatea , behar-beharrezkoa dela uste denean izan ezik.

SEIGARRENA.- Neurri horiek maiatzaren 29an sartuko dira indarrean.

ocasionar un riesgo para la salud de las personas usuarias.

TERCERO.- La prohibición de deporte individual y/colectivo en los arenales, desde las 11:00 hasta las 20:00 horas

CUARTO.- La recomendación a las personas usuarias de un tiempo máximo de permanencia en las playas de tres horas.

QUINTO.- La recomendación a las personas usuarias de no portar sombrillas, sillas, hamacas, colchonetas, etc. salvo que se considere estrictamente necesario.

SEXTO- La entrada en vigor de estas medidas tendrá lugar el día 29 de mayo incluido.

ALKATEA / EL ALCALDE

Nire aurrean / Ante mí

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA / LA SECRETARIA ACCIDENTAL

**ELEKTRONIKOKI SINATUA
FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

